

ATAHUALPA

Espeñatarrak ameriketara eldu baiño lenago, baziran an giza-erakunde aurrerratuak eta ondo eratuak, “inperioak”.

Olako aginterri bat osotzen eben inkak, azkenean Atahualpa buru ebela.

Agintaritzza gogorra eta erlejiño-bidekoa ei zan euren, gaurko izen bat ezartekotan “dictadura teocrática”.

Guk aitatzen doguzan giza-eskubideak ez ziran ondo zaintzen, baiña ori esan daiteke munduan diran beste erakunde guztiai buruz be.

Jakitunak bai, ei ziran. Izarrai begiratzen trebeak eta bide orretatik eratu eben euren egutegia.

Etxegintzan aurrerratuak zirala jakiteko naikoa dogu Matxu-Pitxu eurak egindako gotor-lekua aztertzea.

...

Frantzisko Pizarro eldu zan euren artera.

Gizon ospetsu au 1476n. urtean Caceres´eko Trujillo´n jaioa zan. Ume ta gazte-denporan bizimodu latza igaro eban, txarri-zainen lana be egiten ebala.

Europa-aldetik ibillaldi batzuk egin eta etorkizun argirik agiri ez jakon lez, beste askoren antzera, Ameriketarako bidea artu eban eta 1502n. urtean eldu zan ara.

Ekiñaldi asko bete-ondoren, inka arein aurka egin eban guda eta irabazi. Atahualpa agintari nagusia be atxillotu eban.

Atahualpa´k bein esan eutson:

– Zuen agintari nagusiak be ez dauko dana bere menpean, gizaki guztiak ez dabe bera onartzen. Euskaldunak ez dira pozik aurkitzen bere menpean.

Jakiña da euskaldunak Ameriketan beti jokutzen ebela ango errien askatasunaren alde. Ori ez jaken gogoko españatarrai, eta sarritan zigortu be egiten ebezan. Ereditu bat agertzekotan Mungia´ko Landetxo aitatuko geunke..

Baiña Atahualpa aspertuta egoan espetxean eta au esan eutson Pizarro´ri:

–Zer eskatzen dozu nire askatasunaren truke?.

Pizarro´ren erantzuna:

–Gagozen gela aundi au urrez bete egizizu, urre orren azpian dagoan gizonak eskua gora jazo eta amar atzak gaiñetik agertu-eziñeko bestean.

Urretza aundia zan ori, baiña Atahualpa´k askatasuna lortu nai eban danaren gaiñetik eta bere lagunakaz berba egin eta lortu eban gelea urrez betetea.

Pizarro´ren lagunak laster banandu eben euren artean urre guztia. Izan be guztiak ziran urre-gose.

...

Urrengo egun baten Pizarro´k gauza bildurgarri au esan eutson:

–Urrea bai ekarri dozu, baiña guk ez daukagu zugan uste onik eta ez dogu astasuna emoterik gura. Eriotzarako epaiak aurrera jarraitzen dau. Laster erailgo zaitugu.

Ondo zapuztuta geratu zan gure Atahualpa. 1553n. urtean erail eben.

...

Baiña erail-aurretik ardura aundi bat sortu jakon Pizarro´ri: Gizon au ez da kristiñaua eta ilten ba´dogu betiko inpernura bialtzen dogu eta ori ez geunke egin bear.

Barrero berba egin eban Atahualpa´gaz eta agertu eutson kontzientziko eutsonkontzientziko arazo larri ori. Eta urtenbidea be zein izango zan adierazo eutson: Erail baiño lenago bateatu egingo eben.

Esan eta egin: Abade bat ekarri eben eta bateatu eben Atahualpa, Pizarro bera aitabitxi zala eta bere izena, Frantzisko, ezarten eutsoela.

Urrengo egunean erail eben eta euren ustez mezede aundia egin eutsoen, zuzen-zuzen zerura joango zalako.

Atahualpa´ren gudariak ori jakin ebenean iges egin eben eta Matxu Pitxu gotor-lekuan oztendu zira.

...

Orra or mundu bi, bata antxiñakoa ta sinistebakoa edo siniste okerrekoa eta bestea Pizarro´rena, mundu kristiñaua. Zein bietatik onena? Irakurleak ebatzi begi.

OLAZAR´tar Martin´ek

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ